BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

5274

EBAZPENA, 2008ko martxoaren 25ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, altzairu moldekatua galdatzeko jarduerarako ingurumeneko baimen bateratua ematen duena, Vitoria-Gasteizko (Araba) udalerrian eta Gamarra SA enpresak sustatua.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 22an, Gamarra SA enpresak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Gasteizko udalerrian (Araba) altzairu moldekatua galdatzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera, ondorengo dokumentu teknikoak erantsi zituen:

– Oinarrizko proiektua (2006 urtea): memoria, eranskinak eta planoak.

– Laburpen ez-teknikoa (2006 urtea).

Erreferentziako baimena eskatzeko orduan, Gamarra SA enpresak, besteak beste, jarduerarako baimena, 1987ko azaroaren 14koa eta irekitzeko baimena, 1990eko maiatzaren 21ekoa, zituen. Baimen horiek altzairuzko piezak fabrikatzeko eman zizkioten. Halaber, enpresa sustatzaileak ondorengo baimenak zituen: industriako hondakin geldoen ekoizleen erregistroan inskripzioa, 2005eko maiatzaren 16koa; udaleko saneamendu-sarera isurtzeko baimena, 1987ko azaroaren 14koa (Jarduerarako Baimenean inplizituki dagoen baimena); atmosfera kutsatu dezakeen instalazio gisako baimena, 2004ko uztailaren 23koa, saneamendu-sistema integralera egiten diren isurketei eta atmosferara egiten diren isurtzeei buruz indarrean den araudiak xedatutakoari jarraituz.

2007ko urtarrilaren 25ean, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran eskuhartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, ingurumen organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidea adosteari dagokionez. Zehazki, Gasteizko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari kontsultatu zien.

2007ko martxoaren 27an eta 2007ko urriaren 25ean, ingurumen organoak agiri osagarriak txertatzeko eskatu zion sustatzaileari, eta espedientea 2007ko azaroaren 16an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Gamarra SA enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dagoela egiaztatu da.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko urtarrilaren 14an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Gasteizko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko martxoaren 5ean, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Gamarra SA enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema bateratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen dira eta jarduera horrekin zerikusia dute.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Gamarra SA enpresaren kasuan, honako baimenak behar ditu: saneamendu-sistema bateratura (Gasteizko udalerriko estolderiaren udal-sarea) isurtzeko baimena; hondakin arriskutsuen ekoizle izateko baimena; industriako hondakin geldoen ekoizleen erregistroan inskripzioa; eta ingurumen-izaerako bestelako zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadurari aurrea hartu eta zuzentzeari dagozkion baimenak. Era berean, beste administrazio eta erakunde eskudunek espedientean parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura ordezkatzen du, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Gamarra SA enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Gasteizko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak eta aplika dakiokeen alorreko legerian ezarritako neurriak eta baldintzak. Zehazki, galdaketa sektorearen 2005eko maiatzeko BREF agiriaren edukia izan da kontuan (Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry).

Halaber, sektoreko araudiei dagokienez, kasu honetan aplikatzekoak dira Ontziei eta Ontzi-hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legea nola zenbait jardueratan disolbatzaile organikoak erabiltzerakoan sortzen diren konposatu organiko hegazkorrak isurtzeari buruzko urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretua (azken legezko testu hau murgiltzearen bidez pintatzeko instalazioari aplikagarria da) garatzen eta betearazten duen Erregelamendua onartzen duen apirilaren 30eko 782/1998 Errege Dekretua.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Gamarra SA enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da, eta organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako araudiaren 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko martxoaren 5ean emandako ebazpen-proposamena; Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; Legea burutzeko araudia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta aplikatzeko den gainerako araudia. Ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Gasteizko udalerriko (Arabako Lurralde Historikoa) Bergarako Ateko 6. zenbakian helbide soziala eta IFK: A-01001296 zenbakia duen Gamarra SA enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, Gasteizko udalerrian altzairu moldekatua galdatzeko jarduerarako eta ebazpen honetako bigarren atalean zehazten diren baldintzak jarraituz.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 2.4 kategorian jasota dago, «Eguneko 20 tona baino gehiago produzitzeko ahalmena duten metal ferrosoen galdaketa» izenburupean.

Gamarra SA enpresaren instalazioak Gasteizko udalerrian kokatzen dira, industrialde gisa katalogatutako ingurunean.

Enpresaren jarduera altzairu moldekatua piezak fabrikatzeko galdatzea da. Pieza horiek trenbide, automobilgintza, nekazaritzako makinak eta oro har, makinen sektoreetarako fabrikatzen dira, eta urteko produkzioa 3.500 tona da.

Lehengaia (txatarra, lingotea eta material osagarriak –ferrosilizioa, ferromanganesoa eta bestelako gehigarriak–) arku elektrikoko labean (1.250 kilokoa) eta indukzio-labean (3.000 kilokoa) galdatzen da, eta bi labeek aldi berean funtziona dezakete. Gainera, erreserbako arku elektrikoko bigarren labe bat dago (1.250 kilokoa), eta aurrekoetako batek huts eginez gero abian jartzen da.

Arrak «Isocure prozesua» delakoaren bidez prestatzen dira, harea kutxa hotzeko prozesuan gogortzearen bidez (giro-tenperaturan gogortuz) eta fenol-erretxina amina-katalizatzailea duen diisozianatoarekin batuta erabiltzen da.

Harea berdez moldekatzea eta moldekatze kimikoa egiteko aukera du. Berdez moldekatzean, bentonita eta uraren nahasketaren bidez gogortzen da harea. Moldekatze kimikoan (abiadura handiko balazta bereziak fabrikatzeko erabiltzen da soilik), berriz, erretxina eta katalizatzaile kimikoekin gogortzen da harea. Harea kutxak dituzten bi lerrotan sartzen da, eta behin gogortuta, isurketarako prest dagoen moldea osatzen du.

Isurketa-prozesuan galda buza-zalietara (1.200 kiloko ahalmena dutenak) pasatzen da eta horietatik bi moldekatze-lerroetan kokatzen diren moldeetara isurtzen da.

Desmoldekatzea parrilla bibratzaileen bidez egiten da. Harea hareategiaren zirkuitura berbideratzen da, moldekatzen berrerabiltzeko (beharrezko egokitzapena egin ondoren).

Eskuragarri dauden akaberako prozesu desberdinak ondorengoak dira: granailatzea (altzairu-granailaren jarioaren bidez), mazaroteen ebaketa (galda-betetzearen edaleak) sopletearen bidez eta bizar-kentzea harri urratzaileen bidez.

Gainera, adierazi beharra dago hainbat bezerok altzairuzko piezak pintatzea eskatzen dutela (biltegiratze-denboran babesteko). Pintaketa-lanak murgiltzearen bidez egiten dira, disolbatzailearen oinarrian inprimaketa-pinturak erabiliz.

Azkenik, paketatzea kutxetan edo/eta egurrezko paletetan (batzuetan plastifikatuak) egiten da, eta horren ondoren, produktuak bidaltzeko prest daude.

Instalazioan honako energiak erabiltzen dira: energia elektrikoa fabrikako instalazioen funtzionamendu orokorrerako (honako hauek nabarmentzen dira: indukzio-labea, arku elektrikoko labea, errota, jariaketa, bizar-kentzea), gas naturala mantentze-labean kontsumitzen da eta gasolioa orgatilen funtzionamendurako.

Dauden isurtze-fokuak honako hauek dira: indukzio-labea - arku elektrikoko labea (galdatze-prozesua); Fulgor garbiketa eta Rollagir garbiketa (biak granailatze-prozesutik eratorriak); hareategia (moldekatze-prozesuari lotuta); SVA 6.5. L argintza eta L 25 argintza (argintza-prozesuari dagokiona); desmoldekatzea eta L-2 desmoldekatzea (izen bereko prozesuari lotuta); tratamendu termikoko labea, murgiltze bidezko pintaketa eta bizarrak kentzeko kabina (azken hiruak akabera-prozesuei dagozkienak).

Halaber, zalira isurtzeko prozesuaren eta zolatu gabeko bideen ondorioz isurtze barreiatuak sortzen dira.

Ondorengo isurketa-motak sortzen ditu jarduerak: hondakin-ur sanitarioak, prestatutako estalitako piszinatik sortutako gainezkaldiak eta estalkietatik sortutako euri-urak. Isurketa guztiak estolderiaren udal-sarera isurtzen dira.

Bi hozte-zirkuitu daude: arku elektrikoko labea hozteko dagoen zirkuituak ez du hozte-dorrerik eta hozketa estalitako piszinan gauzatzen da; indukzio-labea hozteko dagoen zirkuituak, aldiz, hozte-dorrea du (legionella kontrolatzeko eskatzen diren mantentze-lanak jasanez). Bigarren

zirkuitu honetako purgatzeetatik eta hustuketetatik sortutako fluxuak aipatutako piszinan sartzen dira. Piszinak estolderiaren udal-sareari konektatuta dagoen gainezkabide bat du.

Estalkietatik eratorritako euri-urak sortzen dira. Patioko euri-urek ez dute isurketarik sortzen, lurrera iragazten baitira (egun zolatu gabe). Hala ere, enpresak kutsatzaileak arrastatzeko aukerarik dagoen identifikatu beharko du, lurzoruari sor diezazkion kalteak zehazte aldera.

Galdaketaren sektoreari buruzko 2005eko maiatzeko BREF agiriaren (Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry) baitan, proiektuak Teknika Erabilgarri Onenak (TEO) bezala har daitezkeen ondorengo neurriak jasotzen ditu: txatarra garbien karga (hornitzaile bakar batengandik datozenak, ziurtagiria dutenak); frekuentzia ertaineko indukzio-labea; galdatze-prozesuan sortutako isurtze atmosferikoen (arku elektrikoko laberako eta indukzio-laberako irteerako tximinia bateratua) xurgapena eta arazketa (mahuka-iragazkien bidez); hareategi- eta bilketa-prozesuen itxiera eta isurtzeen arazketa (mahuka-iragazkien bidez); harearen birsortze mekanikoa; granailatze-prozesuan sortutako isurtzeen bilketa eta arazketa (mahuka-iragazkien bidez); tratamendu termikoaren prozesuan gas naturala erabiltzea; tratamendu-labearen mantentze-lanen berrikusketa programatuak (kanpoko enpresa espezializatu batek erregailuak urtero berrikustea barne) eta Ingurumena Kudeatzeko Sistema bat ezartzea.

Bigarrena.– Gamarra SA enpresak Gasteizko udalerrian sustatutako altzairu moldekatua galdatzeko jarduera ustiatzeko ondorengo baldintzak eta eskakizunak ezartzea.

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Gamarra SA enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren jardunerako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Altzairu moldekatua galdatzeko instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako isurtzeko muga-balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango gai kutsatzaileak mugarik gabe isuri eta horiek biltzea teknikoki edo/eta ekonomikoki bideragarria ez denean, edota ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Altzairu moldekatua galdatzeko instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera	Barruko diametroa	UTM koodernatuak		
					Taldea	X	Y
1	01000221-01	– Indukzio-labea- – Arku elektrikoko labea – Erreserbako arku elektrikoko labea	8 m	0,38 m	B	528665	4746233
2	01000221-02	Fulgor 800 garbiketa	5,8 m	0,2 m	C	528591	4746230
3	01000221-03	Rollagir garbiketa	7,1 m	0,52 m	C	528579	4746237
4	01000221-04	Hareategia	8 m	0,28 m	C	528580	4746295
5	01000221-05	SVA 6.5 L argintza	11,5 m	0,1 m	B	528595	4746268
6	01000221-06	L 25 argintza	5 m	0,25 m	B	528628	4746268
7	01000221-07	Desmoldekatzea	8,5 m	0,2 m	C	528601	4746285
8	01000221-08	Tratamendu termikoko labea	13 m	0,23 m	C	528631	4746222
9	01000221-09	Murgiltze bidezko pintaketa	4,7 m	0,16 m	C	528998	4746237
10	01000221-10	Bizarrak kentzeko kabina	5,5 m	0,63 m	C	528585	4746233
11	01000221-11	L-2 desmoldekatzea	5,5 m		C	528605	4746223

Gainera, modu etenkorreko isurtze barreiatuak sortzen dira, isurketa zalian egiteko etapari eta zolatu gabeko bideei lotuta.

B.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

a) Atmosferara isurtzen diren gai poluitzaileek ondorengo balioak ez gainditzeko moduan ustiatuko da instalazioa:

Fokua(k)	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1. fokua: indukzio-labea- Arku elektrikoko labea- Erreserbako arku elektrikoko labea	Guztizko partikulak (PT)	20 mg/Nm^3
	Nitrogeno oxidoak (NOx)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
2. fokua: fulgor 800 garbiketa	Guztizko partikulak (PT)	20 mg/Nm^3
3. fokua: rollagir garbiketa	Guztizko partikulak (PT)	20 mg/Nm^3
4. fokua: hareategia	Guztizko partikulak (PT)	20 mg/Nm^3
5. fokua: SVA 6.5 L argintza	Aminak	20 mg/Nm^3
6. fokua: L 25 argintza	Aminak	20 mg/Nm^3
7. fokua: desmoldekatzea	Guztizko partikulak (PT)	20 mg/Nm^3
8. fokua: tratamendu termikoko labea	Guztizko partikulak (PT)	150 mg/Nm^3
	Nitrogeno oxidoak (NOx)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
9. fokua: murgiltze bidezko pintaketa	Guztizko partikulak (PT)	150 mg/Nm^3
	Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta)	100 mg C/Nm^3
10. fokua: bizarrak kentzeko kabina	Guztizko partikulak (PT)	20 mg/Nm^3
11. fokua: L-2 Desmoldekatzea	Guztizko partikulak guztira (PT)	20 mg/Nm^3

Murgiltze bidezko pintaketa-jardueraren isurtze barreiatuaren muga-balioa (disolbatzaile-sarreren portzentajea) % 25ekoa da.

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-eko presioa eta gas lehorra.

Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40 gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditu gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25 gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

Enpresak murgiltze bidezko instalazioan erabilitako pinturek eta disolbatzaileek ondorengo arriskuak izan ditzaketen balioetsi beharko du (azken urteotan erabilitako pinturen ezaugarrien edota modu egokian justifikatutako bestelako irizpide baten arabera): R45, R46, R49, R60, R61 edo R40. Aurkezten diren datuen arabera, Sailburuordetzak konposatu bereziak neurtzea eska diezaioke eta hala badagokio, aipatu mugak betetzen direla egiaztatzeko aplikatu beharreko mugak eta irizpideak ezarriko ditu.

B.1.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako gas-hondarrak kanporatzeko tximiniek ez dute B.1.1.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira, Industria Ministerioak industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurrea hartu eta hori zuzentzeari buruz 1976ko urriaren 18an emandako Agindua bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein perturbazio izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute. L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetarako inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

Isurtze barreiatuak murrizteko, isurtzeak biltzeko, husteko eta arazteko sistema guztien mantentze-lan egokiak egingo dira. Gainera, sarrerako bideak eta zolatu gabeko guneak zolatuko dira eta ondorengo jarduerak abian jarriko dira: instalazioak egunero eta astero garbitzea, kanpoko ateak ixtea, pabiloia orokorrean ixtea, kanpoko eta barruko bideak garbitu eta mantentzea, etab., isurtze horiek minimizatzea bermatzeko. Aipatutako informazio guztia agiri honen G.3 ataleko prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan jaso eta erregistratuko da.

B.1.2.– Ibilgura isurtzeko baldintzak.

B.1.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: altzairu-galdategia.

Jarduera-taldea: metala.

Mota-taldea-EJSN: 1-2-2752.

Ondorengo isurketa-motak sortzen ditu jarduerak: hondakin-ur sanitarioak, estalitako piszinatik sortutako gainezkaldiak eta estalkietatik sortutako euri-urak. Isurketa guztiak estolderiaren udal-sarera isurtzen dira.

Bi hozte-zirkuitu daude: arku elektrikoko labea hozteko dagoen zirkuituak ez du hozte-dorrerik eta hozketa estalitako piszinan gauzatzen da; indukzio-labea hozteko dagoen zirkuituak, aldiz, hozte-dorrea du (legionella kontrolatzeko eskatzen diren mantentze-lanak jasanez). Bigarren zirkuitu honetako purgatzeetatik eta hustuketetatik sortutako fluxuak aipatutako piszinan sartzen dira. Piszinak estolderiaren udal-sareari konektatuta dagoen gainezkabide bat du.

B.1.2.2.– Isurtzeko muga-balioak.

Bukaerako isurketak Gasteizko Etxekoak ez diren Isurketei buruzko Udal Ordenantzan ageri diren mugak eta baldintzak bete beharko ditu, erakunde horrek ezar ditzakeen zehaztapen, aldaketa edo salbuespenekin batera.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

B.1.2.3.– Araztu eta husteko instalazioak.

Aplikatu beharreko isurketa-mugak betetzen ez direla ikusiz gero, Gamarra SA enpresak arazketa-instalazio zehatzak ezarri beharko ditu isurketa baimendutako ezaugarrietara egokitze

aldera. Aldez aurretik Administrazioari jakinarazi beharko dio, eta hala badagokio, baimena aldatzea eskatu du.

Kutxeta bat jarriko da bukaerako isurketa kontrolatzeko; kutxeta horrek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak izango ditu.

Kutxeta lursailaren barruan kokatuta egon beharko da, ikuskaritza-zerbitzuak inolako oztoporik gabe iritsi daitezkeen lekuan, eta bere funtzioa bete dezan, behar bezala garbituta egon beharko da. Bere dimentsio eta ezaugarriek laginak hartzea eta isuritako emaria zehaztu ahal izatea ahalbidetu behar die zerbitzu teknikoei.

Zerbitzuko aire-konpresoreek galdaratxoak purgatu ondoren sortutako olioak ezabatzeko ekipamendu berezia izan behar dute nahitaez.

B.1.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketa saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinek desagertu, galdu edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Gasteizko Udalean.

B.1.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak honako hauek dira:

• 1. prozesua: «Galdaketa».

– 1. hondakina: «Xurgapen-hautsak».

Identifikazioa: A01001296/0100000369/1/1.

Hondakinaren kodea: Q9//D15//S25//C24//H5//A241//B3117.

EHZ: 100909.

Urtean sortutako kantitatea: 4.865 kg.

– 2. hondakina: «Kartutxo-iragazkiak».

Identifikazioa: A01001296/0100000369/1/2.

Hondakinaren kodea:Q5//D15//D9//C51/41//H5//A241//B0019.

EHZ: 150202.

Urtean sortutako kantitatea: 633 kg.

• 2. prozesua: «Hareak, arrak eta moldeak prestatzea».

Prozesu honetan, makinak eta instalazioak edo/eta Zerbitzu Orokorrak prozesuan kodetzen diren produktuen kontsumoko ontziak mantendu eta garbitzeko eragiketen hondakin arriskutsuak sortzen dira.

• 3. Prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

Prozesu honen barruan zenbait azpiprozesu daude, eta horietan makinak eta instalazioak garbitzeko eragiketetan hondakin arriskutsu bereziak eta hondakin arriskutsuak sortzen dira. Hauek dira azpiprozesuak:

– Mantentze-lan orokorra: makinetako olioak birjartzeko, lanpara fluoreszenteak birjartzeko, ekipo ofimatikoak birjartzeko eta transformadoreak birjartzeko lanak egiten dira bertan.

– Mantentze-lan mekanikoa: azpiprozesu honetan «taladrina» izeneko hondakina sortzen da.

– Xurgatzaileak eta ehunak biltzea: «Material kutsatua» hondakina sortzen da.

– Ontzi erabiliak biltzea: «Metalezko ontzi hutsak», «plastikozko ontzi hutsak» eta «aerosolak» hondakinak sortzen dira.

– 1. hondakina: «Olio erabiliak».

Identifikazioa: A01001296/0100000369/3/1.

Hondakinaren kodea: Q7//R13//L8//C51//H5/6//A241//B0019.

EHZ: 130205.

Urtean sortutako kantitatea: 600 kg.

– 2. hondakina: «Fluoreszenteak».

Identifikazioa: A01001296/0100000369/3/2.

Hondakinaren kodea: Q14//R13//S40//C16//H6//A241//B0019.

EHZ: 200121.

Urtean sortutako kantitatea: 165 kg.

– 3. hondakina: «Taladrina».

Identifikazioa: A01001296/0100000369/3/3.

Hondakinaren kodea: Q7//D15//L9//C51//H5//A241//B0019.

EHZ: 120109.

Urtean sortutako kantitatea: 210 kg.

– 4. hondakina: «Kutsatutako materiala».

Identifikazioa: A01001296/0100000369/3/4.

Hondakinaren kodea: Q5//D15//S34//C41/51//H5//A241//B0019.

EHZ: 150202.

Urtean sortutako kantitatea: 320 kg.

– 5. hondakina: «Metalezko ontzi hutsak».

Identifikazioa: A01001296/0100000369/3/5.

Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H5//A226//B0019.

EHZ: 150110.

Urtean sortutako kantitatea: 2.000 kg.

– 6. hondakina: «Plastikozko ontzi hutsak».

Identifikazioa: A01001296/0100000369/3/6.

Hondakinaren kodea: Q5//R3//S36//C41/51//H5//A226//B0019.

EHZ: 150110.

Urtean sortutako kantitatea: 50 kg.

– 7. hondakina: «Aerosolak».

Identifikazioa: A01001296/0100000369/4/7.

Hondakinaren kodea: Q14//R13//S39//C40//H3B//A241//B0019.

EHZ: 160504.

Urtean sortutako kantitatea: 35 kg.

– 8. hondakina: «Pintura-orea disolbatzailearekin».

Identifikazioa: A01001296/0100000369/4/8.

Hondakinaren kodea: Q8//R13//P12//C41//H3B//A241//B0019.

EHZ: 080111.

Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

– 9. hondakina: «Disolbatzaile ez-halogenatua».

Identifikazioa: A01001296/0100000369/4/9.

Hondakinaren kodea: Q7//R13//L5//C51//H3B//A241//B0019.

EHZ: 140603.

Urtean sortutako kantitatea: 200 litro.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak jasotzen dituzten ontziek, hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Hondakin arriskutsuak gordetzeko denbora ezingo da 6 hilabetetik gorakoa izan.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakin-kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Gamarra SA enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

g) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

h) Gamarra SA enpresak sortutako olio erabilia industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko da.

i) Ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu Gamarra SA enpresak.

j) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

k) Gamarra SA enpresak poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak dituenez, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak eta errege dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua; gero, azken ekitaldiari dagokion poliklorobifenilo edukia jakinarazi beharko du. Gamarra SA enpresak poliklorobifeniloak dituen artean, nahitaez aurkeztu behar du urtero Errege Dekretu horrek araututako jakinarazpena.

l) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Erregelamenduan ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Gamarra SA enpresak era horretako substantzia erabilirik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparatuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu edo suntsitu baino lehen.

m) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

n) Aurreko e, f (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta m ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

o) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Gamarra SA enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun eta osasun arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena
Errotaren xurgaketako xehekiak	100910	Hareategia	408.150 kg/urte
Zurrusta handiaren xurgaketako xehekiak	100910	Rollagir garbiketa	339.740 kg/urte
Kabinen eta zurrusta txikiaren xurgaketako xehekiak	100910	Bizar-kentzea eta Fullgur garbiketa	949.630 Kg/urte
Hareak	100906	Moldekatzea	812.860 kg/urte
Arrak	100906	Argintza	360.700 kg/urte
Zepak	100903	Galdaketa	1.341.680 kg/urte
Papera eta kartoia	150101	Zerbitzu Orokorrak	-
Zura	150103	Zerbitzu Orokorrak	-
Plastikoak	150102	Zerbitzu Orokorrak	-
Hiriko hondakinekin bateratu daitezkeenak	200301	Zerbitzu Orokorrak	66.790 kg/urte

a) Ebazpen honen B.1.3 atalak hondakinen kudeaketarako printzipio hierarkikoei buruz dioenaren arabera, harea berdez moldekatzeko prozesuan sortutako hareak eta hareategiko jalkin xeheak kudeatzeko, baliotu egingo dira eta ez dira zabortegian utziko. Ezabatzea ez den bestelako kudeaketa-proposamena justifikatu beharko da Sailburuordetza honen aurrean.

b) Errotaren xurgaketako xehekien, zurrusta handiaren xurgaketako xehekien, kabinen eta zurrusta txikiaren xurgaketako xehekien, hare eta arren kasuan, hondakin horiek ispilu-sarrera dute gaur egun indarrean dagoen Europako hondakinen zerrendan. Bada, horiek hondakin ez-arriskutsutzat hartuko dira, baldin eta hondakin horiek lehenengo aldiz ebaluatu baino lehen karakterizatzen badira; karakterizazio horren emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko dira, proposatutako kudeaketa egokia ote den egiaztatzeko. Baldin eta hondakin hori arriskutsua dela ezartzen bada, ebazpen honetako B.1.3.1 atalean jasotako xedapenak aplikatuko dira.

c) Moldekatze-hondarren baliotzearen proposamena edo hondakina baliotzeko ezintasunaren justifikazioa igortzea (arrazoi teknikoak, eragileak, ekonomikoak, eta abar).

d) B.1.3 atalean bereiztearen eta hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoen inguruan xedatutakoari jarraituz, nahasketak izeneko hondakinak ezingo du baliotu daitekeen hondakin-frakziorik izan. Horri dagokionez, egungo egoeran Euskal Autonomia Erkidegoan baliotu daitezkeen hondakin-frakzioak hauek dira: papera eta kartoia, zura, plastikoak.

e) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu bati.

f) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegiratuta eduki. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez gorde ahal izango dira.

g) Oro har, hondakinak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek onartzen dituelako agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan

ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Gamarra SA enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, aginduzkoak direnean, bost urtean gutxienez.

h) Halaber, hondakin geldo eta geldoarazien kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

i) Erregistro bat egingo da, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

j) Aurreko g eta h (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta i ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.1.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako agindua betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztu duten aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Gamarra SA enpresak honako informazioa aurkeztu beharko du:

– SP05 puntuaren (metalezko ontzien hondakinak) biltegiratzea pabiloiaren barrura eramango da, hormigoizko zola gainean.

Halaber, ondorengo gomendioak jarraituko dira:

– Hautsezko materialak arrastatzea murriztuko da, honelako neurri orokorrak ezarriz:

1.– Hautsezko gaiak zuloetan, pabiloi barruan, edo horrelakorik ezean, haizetik hobekien babestutako guneetan biltegiratu.

2.– Haize gogorra dabilenean hautsezko solidoak manipulatzea saihestu.

3.– Materialak deskargatzeko altuera mugatu.

– Isurketek, jarioek edo ihesek kaltetu ditzaketen lursaileko gainazal guztiak zolatuak eta irazgaiztuak egongo dira.

– Isurketak, jarioak edo ihesak eragozteko moduan gordeko dira lehengaiak, erregaiak eta produktuak.

Era horretan, ontzi mugikorretan zein finkotan gordetako produktu kimiko likido guztiek (batez ere substantzia eta prestakin arriskutsuak) eta gordetako erregai likidoek jarioak biltzeko sistema izango dute.

Produktu kimikoak gordetzeari buruz indarrean dagoen araudiak eragindako biltegiratzeek araudi horretan ezarritako babes-neurriak beteko dituzte. Petrolio-instalazioei buruz indarrean dagoen araudiak eragindako biltegiratzeek araudi horretan ezarritako babes-neurriak beteko dituzte.

– Hondakinak B.1.3.1 eta B.1.3.2 ataletan adierazitako jarraibideen arabera biltegiratuko dira.

B.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak hartu eta instalatuko dira:

a) Jarduerari dagokionez, kanpoko zarata-maila ezin izango da inoiz ere 70 dB (A) baino handiagoa izan, goizez nahiz gauez. Balio hori etengabeko zaratari dagokio; inpaktuaren zarataren kasuan, 3 dB (A) gehiago gehituko dira. Kanpoko zarata-maila kanpoaldeko espazio librean dagoen LPA presio akustiko ponderatuaren mailari dagokio eta soinu-iturri zehatz batek sortzen du. Gasteizko Zarata eta Bibrazioen Ordenantzaren II. eranskinean ezarritakoaren arabera neurtzen da.

b) Jarduerari dagokionez, inguruko industrietan barruko zarata-maila ezin izango da inoiz ere 55 dB (A) baino handiagoa izan, goizez nahiz gauez. Balio hori etengabeko zaratari dagokio; inpaktuaren zarataren kasuan, 3 dB (A) gehiago gehituko dira. Barruko zarata-maila esparru bateko barrualdean dagoen LPA presio akustiko ponderatuaren mailari dagokio eta eraikinean bertan edo inguruko eraikin batean kokatzen den beste esparru batean funtzionatzen duen soinu- edo bibrazio-iturri zehatz batek sortzen du. Gasteizko Zarata eta Bibrazioen Ordenantzaren I. eranskinean ezarritakoaren arabera neurtzen da. Erabilera tertziarioari dagokionez, honako hauek dira mugak: goizez 40 dB (A) (08:00 eta 22:00 bitartean) eta gauez 35 dB (A) (22:00 eta 08:00 bitartean).

c) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

B.1.6.– Paisaiarekin zerikusia duten baldintzak.

Sustatzaileak proposatutakoaren arabera, pabiloien kanpoalde guztian ordena eta garbiketa mantentzeko neurriak ezarri eta mantenduko dira, gune horretan hondakinak eta bestelako materialak biltegiratu daitezen saihesteko.

C) Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena Zaintzeko Programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Atmosferara botatzen diren poluitzaileak kontrolatzea.

a) Gamarra SA enpresak isurtzeen kontrola egin beharko du, informazio honi jarraituz:

Fokua	Foku-kodea	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	01000221-01	Indukzio-labea-arku elektrikoko labea	Guztizko partikulak (PT)	Urtero
			Dioxinak eta furanoak (PCDD eta PCDF)	Lehen urtean
			Nitrogeno oxidoak (NOx)	Urtero
			Karbono monoxidoa (CO)	
			Sufre oxidoak (SO2)	
			HCl, HF, Cl	2 urtean behin
			Metal astunak (Zn, Pb, Ni, Hg, Cu, Cr, As, Cd)	2 urtean behin
			Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta)	2 urtean behin
2	01000221-02	Fulgor 800 garbiketa	Guztizko partikulak (PT)	5 urtean behin
3	01000221-03	Rollagir garbiketa	Guztizko partikulak (PT)	5 urtean behin
4	01000221-04	Hareategia	Guztizko partikulak (PT)	3 urtean behin
5	01000221-05	SVA 6.5L argintza	Amina	3 urtean behin
			Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta)	
6	01000221-06	L25 argintza	Amina	3 urtean behin
			Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta)	
7	01000221-07	Desmoldekatzea	Guztizko partikulak (PT)	3 urtean behin
8	01000221-08	Tratamendu termikoko labea	Guztizko partikulak (PT)	3 urtean behin
			Nitrogeno oxidoak (NO_X)	
			Karbono monoxidoa (CO)	
9	01000221-09	Murgiltze bidezko pintaketa	Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta)	5 urtean behin
			Guztizko partikulak (PT)	
10	01000221-10	Bizarrak kentzeko kabina	Guztizko partikulak (PT)	5 urtean behin
11	01000221-11	L-2 desmoldekatzea	Guztizko partikulak (PT)	3 urtean behin

b) Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak baimendutako kontrol erakunde (BKE) batek egin beharko ditu (zortzi ordutan hartutako hiru neurri, gutxienez ordubetekoa bakoitza; dioxinak eta furanoak ere neurtzen direnean, 6 edo 8 orduz neurtuko dira), eta aldizkako kontrol horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «Baimendutako kontrol erakundeen gutxieneko txostenean» ezarritakora egokitu beharko dira. Nolanahi ere, isurtzeko kontrolek eta baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Arestian eskatutako parametro guztien neurketen BKE txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen

honetan kontrol-maiztasuna ezarri aurretik egindakoak badira. Atmosferara egiten diren isurtzeen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

c) Gamarra SA enpresak jarduera jakin batzuetan disolbatzaileen erabilerak eragindako konposatu organiko hegazkorren emisioak mugatzeko baldintzei buruzko urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuak ezarritakoa bete behar du. Xede horretarako, Ingurumen Sailburuordetzak eskatzen duen informazioa aurkeztu behar da.

d) Aurretiaz adierazi bezala, sartzeko bideak eta zolatu gabeko guneak egokitu eta zolatu beharko dira, bideetan sortutako isurtze barreiatuak minimizatu ahal izateko.

C.1.1.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilita gauzatuko da erregistroa, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Dokumentazio hori eguneratuta egongo da, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskuragarri izango dute.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Udaleko kolektorera estalitako piszinaren gainezkaldietatik sortutako industria-uren isurketaren analisiak egingo dira, ondorengo parametroetan: oxigeno-eskaera kimikoa (OEK), guztizko fosforoa (Ptot), zinka (Zn), konposatu organiko halogenatuak (AOX), hondar-kloro askea (Cl), kloro dioxidoa (Cl O2). Analisiak sei hilean behin egingo dira, indukzio-labeko hozte-zirkuitu hustearen ondorioz sortutako fluxua isuri aurretik.

b) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, laginak hartzea nola ondorengo analisia, «Erakunde Laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du, eta organo eskudunak ezarritako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Ingurumenaren gaia	Enpresari eskatutako abiapuntuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea
Ekoizpena	Metal likidoa	T	Metal likidoa	T
Lehengai eta osagarrien kontsumoa	Lehengaien guztizko kontsumoa: – Txatarrak, – Lingoteak – Ferroaleazioak	T	Lehengaien guztizko kontsumoa: – Txatarrak, – Lingoteak – Ferroaleazioak	T
	Harea-kontsumoa	T	Harearen berreskuratze-maila	% (t/t)
	Erretxinen kontsumoa	T	Erretxinen kontsumoa/ moldekatze kimikorako harearen kontsumoa	T/t
	Pinturen kontsumoa	T		
	Disolbatzaileen kontsumoa	T		
Energiaren kontsumoa	Gas naturalaren kontsumoa	Kwh	Gas naturalaren kontsumoa energiaren guztizko kontsumoaren aurrean	Kwh/kwh (%)
	Elektrizitatearen kontsumoa	Kwh	Elektrizitatearen kontsumoa energiaren guztizko kontsumoaren aurrean	
	Energiaren guztizko kontsumoa	Kwh	Energia espezifikoa (kontsumitutako energia / metal likidoa)	Kwh/kwh (%)
Uraren kontsumoa	Uraren kontsumoa	M^3	Uraren kontsumoa	M^3
Uretara egindako isurketak	Industria-isurketak / Gasteizko udalerriko estolderiaren udal-sarea	M^3	Industria-isurketak / Gasteizko udalerriko estolderiaren udal-sarea	M^3
	Euri-uren isurketa / Gasteizko udalerriko estolderiaren udal-sarea	M^3	Euri-uren isurketa / Gasteizko udalerriko estolderiaren udal-sarea	M^3
Isurtze atmosferikoak	Partikulen guztizko isurtzea (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin-kopurua)/ 1, 2, 3 eta 4. Fokuetarako	Mg/nm^3	Partikula solidoen isurtzea	Mg/nm^3
	Partikula solidoen isurtzea	Kg	Partikula solidoen isurtzea	Kg
			Partikula solidoen isurtzea/metal likidoa	Kg/t
	Amina-isurtzeak kog gisa (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin-kopurua) / 5. Fokurako	Mg/nm^3	Kog gisa isuritako aminak	Mg/nm^3
	Guztizko amina-isurtzeak	Kg	Guztizko amina-isurtzeak	Kg
	Kogen guztizko isurtzea (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin-kopurua)/ 1. Eta 5. Fokuetarako	Mg/nm^3		
	Kogren guztizko isurtzea	Kg	Coren guztizko isurtzea	Kg
			Coren guztizko isurtzea/metal likidoa	Kg/t
	Dioxinen isurtzeak/1. Fokurako	Mg/nm^3	Dioxina-isurtzeak	Mg/nm^3
Hondakinak	Arazketa-sistemetan jasotako jalkin xeheen kantitatea	T	Arazketa-sistemetan jasotako jalkin xeheen kantitatea / metal likidoa	T/t
	Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kopurua	T	Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kopurua	T
			Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kantitatea/metal likidoa	T/t
	Birzirkulatutako disolbatzailea	T	Birzirkulatutako disolbatzailea/ kontsumitutako disolbatzailea	% (t/t)

	Hondakin arriskutsu baliotuak	T	Hondakin arriskutsu baliotuak / sortutako hondakin arriskutsuak	T/t (%)
	Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kopurua	T	Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kopurua	T
			Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kopurua/metal likidoa	T/t
	Hondakin ez-arriskutsu baliotuak	T	Hondakin ez-arriskutsu baliotuak / sortutako hondakin ez-arriskutsuak (gainerako osagaiak, …)	T/t (%)
			Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kopurua / guztizko hondakinak	T/t (%)
Lurzoruaren kutsadura	Ustekabeko isurketekin lotutako gorabehera kopurua (ingurune hartzailea zehaztu: airea, ura, lurzorua)	Kopurua/ urte	Ustekabeko isurketekin lotutako gorabehera kopurua	Kopurua/ urte
Iks	Ezarri eta egiaztatutako kudeaketa-sistemak (zehaztu)	Bai/ez Zein/ urtea	Ekoscan/ urte Eta/edo Iso14001/ urte Eta/edo Emas/ urte	Bai/ez Zein/ urtea

C.4.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lursaileko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan.

Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamen hori ebazpen honetako C.6 atalean aipatzen den ingurumena zaintzeko programako testu bateginarekin batera aurkeztuko da.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30a baino lehen, ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta inguruneareen kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

Isuritako uraren kalitatearen kontrolari buruzko emaitzak, gainera, hiru hilean behin bidaliko dira Uraren Euskal Agentziara (Gipuzkoako, Bizkaiko edo Arabako Ordezkaritza).

C.6.– Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan ezarritako betekizunak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-

mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak edo analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretan kutsadurari aurrea hartzeko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, botako diren kutsagarriak eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (27520 epigrafea «Metalen galdaketa»), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela eta, Gamarra SA enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko neurriak eta jarduerak.

Aurkeztutako dokumentazioan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko isuri edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskaritza eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskaritzak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurrea hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona bermatuko duten neurriak gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Besteak beste, gasolioa, erretxinak, katalizatzaileak eta abar, eta orokorrean, instalazioan sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa ditzake. Beraz, isurketak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lursailen azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako ingurunea isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

h) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

i) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isuriak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko.

Ebazpen honen B.1.4 atalean deskribatutako jarduerez gain, gasolioa biltegiratzeko eta maneiatzeko instalazioak behar den bezala isolatuko dira, gerta daitezkeen haustura, ustekabeko gainezkatze eta abarrei aurre egiteko.

j) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, ihesak, jarioak, lurzorua edo ura kutsa ditzaketen hondakinak, erregaiak edo substantzien isurketa garrantzitsuak; suteak), gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari.

k) Gorabehera edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, eta bertan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

– Gertakari mota.

– Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.

– Iraupena.

– Ustekabeko isuria bada, emaria eta isuritako gaiak.

– Mugak gaindituz gero, isurtzeei buruzko datuak.

– Eragindako kalteen balioespena.

– Hartutako neurri zuzentzaileak.

– Berriro gerta ez dadin aurreikusitako neurriak.

– Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

l) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Gamarra SA enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara botatako kutsagarriei, uretara egindako isurketei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, E-E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duen apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-L03 Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) Ingurumeneko baimen bateratu honen eraginpeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.1.1 Sartzeko bideak eta zolatu gabeko guneak egokitu eta zolatzeko proposamena eta B.1.3.1.e (hondakin arriskutsuen onarpen-agiria, «xurgapen-hautsa» hondakinaren onarpen-agiriak R baliotze-kodea izan beharko du); B.1.3.1.m (hondakin arriskutsuen erregistro-eredua); B.1.3.1.k (PCB izatearen adierazpena); B.1.3.2.a (harea berdez moldekatzea eta hareategiko jalkinak, plastikoa, zura, papera, kartoia, zura baliotzeko proposamena); B.1.3.2.b (EHZn ispilu-sarrera duten hondakinen karakterizazioa); B.1.3.2.g (hondakin ez-arriskutsuen onarpen-agiriak); B.1.3.2.i (hondakin ez-arriskutsuen erregistro-eredua); B.1.4 (lurzoruaren kalitatea babesteari buruzko baldintzak); C.1 (atmosferara egiten diren isurtzeen kontrola); hala dagokionean, C.1.1 (isurtze atmosferikoen erregistro-eredua); C.4 (Zarata neurtzeko proposamen zehatza); C.6

(Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina); D.1 (mantentze-lanetan sortutako isurtze eta hondakinen balioespena); D.3.g (larrialdietarako materialen zerrenda); eta D.3.k (suteen aurkako babeserako egiaztagiriak).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskaritza-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskaritza-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den egunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Gamarra SA enpresak ebazpen honen xede den altzairu moldekatua galdatzeko jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

– Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

– Gamarra SA enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

– Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Gamarra SA enpresari, Gasteizko Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren

26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko martxoaren 25a.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.